



Lezoko Unibertsitateko Udala

AURREKONTUA BETEARAZTEKO UDAL ARAUA

I. TITULUA.- AURREKONTU OROKORRAK.

I. ATALBURUA.- AURREKONTUAREN DEFINIZIOA, IRAUNALDIA ETA PRINTZPIOAK

1. Artikulua – Denbora Esparrua.

1. Aurrekontuaren onarpena, kudeaketa eta likidazioa, Toki Administrazioari aplikagarri zaion arautegi orokorraren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateetako abenduaren 19ko 21/2003 Aurrekontu-Arau Foralaren eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arau honen menpean egin beharko dira, azken honi aurrerantzean **Arau** deituko zaiolarik eta Aurrekontuaren iraunaldi bera izango duelarik.
2. Baldin eta Aurrekontua luzatu behar izango balitz, Arau honek era berean arautuko du luzapen horren denboraldian.

2. Artikulua – Esparru funtzionala

Hemengo Arau hau izaera orokorrez aplikatuko zaio Udal Aurrekontuaren eta Organismo Autonomoen Aurrekontuaren, halakorik izango balitz, betearazteari, ondoren zehaztuko diren berezitasunak kontuan edukiz.

3. Artikulua – Aurrekontuaren betearazteari buruzko informazioa.

Hiru hilero, hiru hilabete naturaleko denboraldi bakoitza burutu ondorengo lehenengo ohiko bilkuran, aurrekontuaren betearazte-egoeraren berri kontu emango zaio Udalbatza osoari, Programa funtzionalen eta Atalburuen mailan, gastuetako “**A**” eta “**O**” faseak diferentziazatuz, gutxienez.

4. Artikulua – Lotura juridikoak

Ezin izango da gastu konpromisorik hartu gastuen egoeran baimendutako kredituen zenbatekoa baino kopuru handiagoz, horiek izaera mugatzailea dutelarik hurrengo puntuan finkatzen den lotura juridikoaren maila-barruan.

- **I Atalburuko – “Pertsonalaren kostuak”** partidetarako, lotura definiturik geratzen da;
 - **Kapituloa**
- **II Atalburuko – “Ondasun arrunt eta zerbitzuetarako gastuak”** partidetarako, lotura definiturik geratzen da;
 - Klasifikazio funtzionalari dagokionez, programa funtzionalen bidez,
 - Klasifikazio ekonomikoari dagokionez, lotura finkaturik geratzen da atalburu mailan
 - Azpi-kontzeptu mailan, lotura finkatzen da azpi-kontzeptu hauetarako:
 - ✓ **221-01:** Energia elektrikoaren hornidura
 - ✓ **222-01:** Telefonoa
 - ✓ **227-01:** Garbiketak



Lezoko Unibertsitateko Udala

✓ **230-01:** Dietak, lokomozioa.

- **III – “Finantza-gastuak” eta IX - “Finantza-pasiboak” Atalburuetako** partidetarako, lotura definiturik geratzen da:
 - Atalburua eta biak elkarrekiko.
- **IV – “Transferentzia Arruntak” Atalburuetako** partidetarako, lotura definiturik geratzen da:
 - –Klasifikazio funtzionalari dagokionez, programa funtzionalen bidez
 - –Klasifikazio ekonomikoari dagokionez, Kontzeptu bidez

Baldin eta dirulaguntza izendun baterako partida bat sortzeko kreditu-transferentzia bat egin behar balitz, G.A.O.n argitaratu beharko da hura eman aurretik..
- **VI – “Benetako inbertsioak” Atalburuetako** partidetarako, lotura definiturik geratzen da:
 - –Klasifikazio funtzionalari dagokionez, programa funtzionalen bidez
 - –Klasifikazio ekonomikoari dagokionez, Kontzeptu bidez
- * **VII – “Kapital-transferentziak” eta VIII “Finantza-Aktiboak”** Atalburuetako partidetarako, lotura definiturik geratzen da aurrekontu-partida mailan.

II. ATALBURUA.- KREDITU-ALDAKETAK.

5. artikulua – Erregimen Orokorra.

1. Aplikagarri izango da Lurraldeko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko V. Atalean 19.etik 36.era arteko artikuluek xedatzen dutena.
2. Alkateak eskumena izango du kreditu gehigarriak onartzeko, urte osokoak pilaturik Aurrekontuaren %5 baino gehiagoko hazkuntza ez suposatzekotan.

II. TITULUA.- GASTUEI BURUZ

I. ATALBURUA – ARAU OROKORRAK

6. Artikulua – Gastu-baiena

3. Gastu bat egiteko erabakia bideratzen duen egintza da baimena, zenbateko zehatz edo hurbildu baten heinean, aurrekontu-kreditu bateko erabilgarri osoa edota haren parte bat helburu horretarako xedatuz.
4. Eskumena **Alkate jaunarena** izango da ondorengo gastu hauek baimentzeko: Udalak aurrez bere gain hartutako obligazioei dagokienean, esaterako, udal enplegatuen nominak, kontribuzioak, amortizazio eta interes kuotak, kontraturiko aseguru-polizak, gas eta elektrizitate hornidurak e.a.

Gastua proposamen bidez baimenduko da kontabilitateko kreditu-kontratazioaren ondorioetarako. Udal Kontu-hartzailetzaren alde aurreko txostena beharko du.

5. 2003ko uztailaren 3ko 262 eta 263. Alkate-Dekretuen indarrez, delegatutako eskumenen esparruan **Alkatetzaren Delegatu jaunei** egokituko zaie gastu arruntak baimentzea, gastua ezin zatikatu izanik eta ondorengo zenbateko hauek ez gainditzekotan:



Lezoko Unibertsitateko Udala

- ✓ Obra-kontratua 30.000 € arte,
 - ✓ Zerbitzu, hornidura eta asistentzia teknikoko kontratua: 12.000 € arte.
6. **Tokiko Gobernu Batzarrari** egokituko zaio aurreko 2 atalean seinalatua baino zenbateko handiagoko gastuak baimentzea eta, betiere, gastu horiek ondorengo kopuru hauek ez gainditzekotan:
- ✓ Obra-kontratua 30.001€-tan hasi eta Aurrekontu Arruntaren %10 arte
 - ✓ Zerbitzu, hornidura eta asistentzia teknikoko kontratua: 12.001etik hasi eta Aurrekontu Arruntaren %10 arte
 - ✓ Transferentzia arruntak eta dirulaguntzak ematea: 6.000€-tatik aurrera
7. **Udalbatza Osoari** egokituko zaio gastuak erabakitzea, nahitaezko tramiteak eta txostenak eta beharrezkotzat jotzen direnak alde aurretik buruturik, ondorengo zenbateko hauek gainditzen dituztenean:
- ✓ Obra-kontratua Aurrekontu Arruntaren %10etik hasita,
 - ✓ Zerbitzu, hornidura eta asistentzia teknikoko kontratua: Aurrekontu Arruntaren %10etik hasita.
8. Gastu-baimenak espediente bat gauzatzea errekerituko du, eta hartan jaso beharko da “**A**” dokumentu kontablea.

7. Artikulua – Gastu-xedapena

1. Aldez aurretik baimendutako gastuak egiteko erabakia bideratzen duen egintza da xedapena zehazki mugatutako zenbateko baten heinean.
2. Gastu-xedapena onartzeko organo eskudunak aurreko artikuluan seinalaturiko berak izango dira.
3. Xedapena onartu aurrez, espedientea tramitatuko da eta hartan jasota egongo da “**D**” dokumentu kontablea.
4. Baldin eta gastu espedientearen hasieran haren zenbateko zehatza eta hartzailearen izena ezagutzen denean, baimen eta xedapen faseak metatu egingo dira, “**AD**” dokumentu kontablea tramitatu.

8. Artikulua – Hartutako obligazioa

1. “Hartutako obligazioa” kreditu exijigarriak kontuetan erregistratzearen emaitza da, xedapenaren gaia den prestazioa, edota adostutako, nahiz horri buruz ezarritako, baldintzak bete izana behar bezain egoki kreditatu delako. Horrek suposatzen du, Entitatearen kontra kreditu exijigarri bat dagoela, baimendutako eta konprometitutako gastu batetik eratorria.
2. Baldin eta obligazio-errekonoizte hori aurreko ekitaldietan gastu bat, aurrez haren konpromisoa baimendu izan gabe, benetan egin izanaren nahitaezko ondorio bada, Udalbatza Osoari egokituko zaio haren onarpena.
3. Hartutako obligazioaren faseak “**O**” dokumentu kontablearen tramitazioa exijitzen du, nahiz eta hornidurak erosteagatik edota zerbitzuak emateagatik aurkeztutako fakturen kasuan, faktura horiek, behar duten adostasuna jaso eta gero, “**O**” dokumentu gisa kontabilizatuko diren..
4. Baldin eta, gastuaren izaera dela medio, “baimen- xedapen- hartutako obligazio” faseak bateratu badira, metatu ahal izango dira, “**ADO**” dokumentu kontablea tramitatu.
5. Kontratistek eta/edo hornitzaileek emandako fakturak Udalean aurkeztuko dira, apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuak xedatutakoaren ildotik, haren bidez arautzen baita enpresariei eta profesionaleri dagokien faktura-emate eta aurkezteko betebeharra, eta halaber, bat datorren gainerako legeriaren ildotik, gutxienez ondorengo datu hauek eduki beharko dituelarik:
 - Udalaren edo Organismo Autonomoaren identifikazio argia (izena, NIF).
 - ✓ -Kontratistaren identifikazioa.
 - ✓ -Fakturaren zenbakia.
 - ✓ -Horniduraren edo zerbitzuaren deskribapen egokia.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- ✓ -Enkargua egin zuen gestio-zentroa.
 - ✓ -Adjudikatzeko-momentuan jakinarazi zen gastu-espeditentearen zenbakia
 - ✓ -Gastu horri dagokionez, lehenago fakturatutako zenbatekoak, halakorik balitz..
 - ✓ -BEZ zehatza edota horren salbuespenaren aipamen argia.
 - ✓ -Kontratataren sinadura.
6. Fakturak jasotzean, adostu egingo dira edota, hala behar balitz, beste gestio-bulego batera bidaliko dira, Programa Funtzionalaren Arduradunak adostu ditzan, egintza horrek berariaz suposatzen duelarik zerbitzua edo hornidura hitzartutako baldintzen arabera bete dela.
 7. Aipatutako fakturak adostu eta gero, Fondoan Kontuhartzaitzara eramango dira, fiskalizazio eta kontabilizazio ondorioetarako.
 8. Obra-ziurtapenei dagokienez, nahitaezkoa izango da faktura beraiei bateratzea, dokumentu horietan bietan Zerbitzu Teknikoen adostasuna jasota izan beharko delarik.

9. Artikulua – Obligazioa errekonozitzeko nahikoa Dokumentu

1. **I atalburuko** gastuetan arau hauek beteko dira:
 - a) Pertsonal behin-behineko, funtzionario eta laboralaren oinarriko ordainketak eta ordainketa osagarriak (10, 11, 12 eta 13 artikulua) hileroko nominen bidez justifikatuko dira, eta haietan jasoko da Pertsonal Teknikariaren eginbidea, bertan kreditatuz dagokion pertsonalak benetan zerbitzuak bete dituela aurreko denboraldian.
Nominak “O” dokumentutzat hartzen dira.
 - b) Gizarte-Segurantzaren kuotak, dagozkien likidazioen bidez justifikaturik geratzen dira, “O” dokumentutzat hartuko direlarik.
 - c) Beste kontzeptu batzuetan, horietako gastua kanpoko agente batek emandako zerbitzuak ordaintzera xedaturik denean, nahitaezkoa izango da faktura aurkeztea, aurreko artikuluan ikusi den bezala.
2. **II atalburuko** gastuetan, ondasun arrunt eta zerbitzuetan, orokorrean faktura aurkeztea exijituko da.
Dieta eta lokomozio gastuek, gastua justifikatuz gero, “ADO” dokumentuen tramitazioa eragingo dute, hori Kontuhartzaitzaren emango delarik eta Alkateak baimendu beharko duelarik.
3. Finantza-gastuetan (**III eta IX atalburuak**) arau hauek bete beharko dira:
 - a) Banku-kontuan zuzenean kargua eragiten duten interes eta amortizazio gastuak, finantza-koadroarekiko haien egokierari dagokionez Kontuhartzaitzaren adostasunarekin justifikatu beharko dira.
 - b) Era berean egingo da beste zenbait finantza-gasturi dagokionez, baina justifikazioa osatuagoa izango da eta formalizatutako dokumentuen kopiekin edo luzamendu-interesen likidazioarekin sostengatu beharko da.
4. Transferentzia arruntetan, indarrean dagoen Araudia kontutan edukiko da.
5. Inbertsio-gastuetan, kontratistak faktura aurkeztu beharko du, zenbait kasutan obra-ziurtapen agiriarekin batera, aurreko artikuluan seinalatu den bezala.
6. Akzio-erosketak exijituko du bere ordainketarako, akzioak berak, edota haien ordezkagiri baliozkoa, Korporazioaren eskuetan izan beharra.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7. Pertsonalari mailegu emateak “ADO”, dokumentuaren tramitazioa eragingo du, Pertsonal Zerbitzuak eskaturik, eta horren sostengua hura eman izanaren baimena izango da.

10. Artikulua – Agindutako ordainketa

1. “Agindutako ordainketa” gisa ulertzen da, arduradunak ordainketa-agindu bat ematea Udal Altxortegiaren kontra, jada hartutako obligazio batekin zerikusian.
2. Udalaren ordainketak agintzea Alkatearen eskumena da, baina delegatu ahal izango du, indarrean dagoen arautegian erabakitakoaren arabera.
3. Ordainketa-agintzea, orokorrean, Altxortegiak moldatuko duen ordainketa-agindu zerrenda baten ildotik egingo da, fondo-xedapen planarekin, pertsonal gastuen nahitaezko lehentasunarekin eta aurreko ekitaldietan hartutako obligazioekin adosturik.
4. Baldin ordainketaren izaerak eta presak hala eskatzen badute, haren agindua egin daiteke indibidualki.

III. ATALBURUA.- AURREKONTU-KREDITUEN ERREGIMEN OROKORRA

11. Artikulua – Pertsonaleko Gastuak

1. **I atalburuko** gastuei dagokienez, arau hauek bete beharko dira:
 - a) Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda Udalbatza Osoak onartzeak, oinarriko ordainketetatik eta osagarrietatik eratorritako gastuaren baimentzea suposatzen du, dena den, ordainketei buruzko udal akordioetan erabaki daitekeenaren kalterik gabe.
 - b) Hileroko nominak eta aparteko ordainsariei dagozkienak, aldezturik egiaztatu eta frogaturik, horretarako moldatua den eta nomina-programa kontabilitatekoarekin lotzen duen prozesu informatiko integratuaren bidez kontabilizatuko dira. –S.I.G.E.–.
 - c) Funtzionarioen izendapenak, edo pertsonal laboralaren kontratazioak, dagokien gastuaren onarpena inplikatu du, eta gastu horren heinean gehitu egingo da aurreko a) atalean aipatzen den baimendua.
 - d) Gizarte Segurantzako, Elkarkidetzako eta Osasun Asistentzia Zerbitzuko kuotei dagokienez, Udal honek aipaturiko Erakundeekin hartutako akordioaren arabera egingo da. Gizarte Segurantzako kotizazioei dagokienez, horien kontabilizazioa, udal pertsonalaren eta dedikazio osoko korporazio-kideen nominetakoaren antzeko eran egingo da.
2. **I eta II atalburuetako** gainerako gastuei dagokienez, nahitaezkoak eta urte hasieran ezagunak badira, dagokien “AD” dokumentua tramitatuko da. Gastuak aldagarriak balira, Korporazioak burutara daramatzan jardueren funtzioan edo hartzaileen inguru-abar pertsonalen funtzioan, ondorengo artikuluetan jasotako arau orokorren arabera kudeatuko dira.

12. Artikulua – Baimena-Xedapena

1. Konkurtso edo enkante bidez kontratazio-espeditante bat gauzatu behar zaien gastuetan, espedientearen hasieran “A” dokumentua tramitatuko da, Zerbitzu Teknikoen egindako proiektu edo aurrekontuaren kostu-kopuruaren hein bereko.
2. Adjudikatzeduna eta gastuaren zenbateko zehatza ezagutzeko, “D” dokumentua tramitatuko da.
3. Segidan, eta obra egitea, zerbitzu ematea edo hornidura benetan gauzatzen doan heinean, dagozkien “O” dokumentuak tramitatuko dira.
4. Multzo honetan sartzen dira ondoren zehazten direnak:
 - ✓ Inbertsio edo mantenimendu obrak egitea.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- ✓ Ibilgeturen erosketa.
- ✓ Beraien izaerak, baimentze eta xedatze egintzak bereiztea aholkatzen duen beste zenbait kasu.

13. Artikulua – Baimentzea eta Xedatzea.

1. Korporazioak legalki hartutako konpromisoei dagozkien gastuek, “**AD**” dokumentuaren tramitazioa eragingo dute, ekitaldiari eratzeki dakiokoen zenbatekoaz.
2. Multzo honetan sartzen dira ondoren zehazten direnak:
 - ✓ Urte anitzetarako gastuak (kreditu konprometituak), konprometitutako urtekoaren kopuruaz.
 - ✓ Alokairuak.
 - ✓ Jarraikako tartetako lanak (garbiketa, zaborra bilketa, argien mantenimendua e.a.)
 - ✓ Hitzartutako maileguen interesak, haien xedapen efektiboari egokitzearen kalterik gabe.
 - ✓ Hitzartutako maileguen amortizazio-kuotak.
 - ✓ Kontratazio txikiren gai diren erosketa edo zerbitzuak.
 - ✓ “**O**” dokumentuak tramitatuko dira, efektibo izango denean dagokion obra egitea, zerbitzua ematea edota kontratatutako ondasunaren eskuratzea, horretarako fakturak edo bankuko kontuan egindako kargua aurkeztea aski izango delarik

14. Artikulua – Baimen-Xedapen-Obligazio.

1. Ondasun konkreturen erosketek eta, halaber, kontratazio-prozesutara lotu gabeko beste zenbait gastuk, obligazioaren eskagarritasuna berehalakoa izan daitekeenean, “**ADO**” dokumentuaren tramitazioa eragingo dute.
2. Talde horretakoak dira:
 - ✓ Material txikiren erosketak.
 - ✓ Dietak.
 - ✓ Lokomozio gastuak.
 - ✓ Berandutze interesak.
 - ✓ Beste zenbait finantza-gastu.
 - ✓ Buelatzeko aurrerakinak funtzionarioei.
 - ✓ Jarduera judizialean fondo-hornidurak.

15. Artikulua.- Eemaitzen eta dirulaguntzen Tramitazioa.

1. Beste Administrazio edota Entitateri nahitaezko emaitzen kasuan, ekitaldiaren hasieran kopurua ezaguna bada, “**AD**” dokumentua tramitatuko da.
2. Nahitaezko emaitzen kopurua ezaguna ez balitz, uste den emaitzaren heineko kredituaren atxikipena premiatuko da.
3. Dirulaguntzek, haien onuraduna Aurrekontuan espreski seinatzen denean (izendunak), ekitaldiaren hasieran “**AD**” dokumentuaren tramitazioa eragingo dute.
4. Beste dirulaguntzek “**AD**” dokumentua eragingo dute, haiek emateko momentuan.
5. Edozein moldetako dirulaguntza emateak espediente bat eratzera errekerituko du, hartan jasoko direlarik fondoan xedea, hura ordaindu ahal izateko bete beharreko nahitaezko baldintzak eta, halaber, jasotako kopurua itzultzeko obligazioa sortuko luketen arazoak.
6. Dirulaguntzaren ordainketa-agindua eman ahal izateko, nahitaezkoa da Kudeaketa-Zerbitzuak kreditatzea, hura emateko akordioan eskatzen ziren baldintzak bete direla. Baldin eta baldintza horiek, bere izaerarengatik beragatik, fondoak jaso eta gero bete behar badira, Kudeaketa-Zerbitzuak zehaztu egingo du, haiek, nolana ere, zein denboralditan bete beharko diren.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7. Azken balizko horretan, Kontuhartzaitzak erregistratu egingo du fondoak justifikatu beharrean geratzearen egoera hori, haren jarraipena egiteko eta behar diren neurriak proposatzeko helburuz.
Dirulaguntza ematearen inolako ordainketarik ezin izango da egin, baldin 6. puntuari aipatzen den denboraldia iragan bada fondoari aplikazioa justifikatu gabe.
8. Orokorrean, jasotako fondoari aplikazioa justifikatzeko, kontuan edukiko da:
 - ✓ Dirulaguntzaren xedea obra edo instalazio bat egitea denean, beharrezkoa izango da Udala Zerbitzuetako teknikari bat tokira bertara joatea eta egindako obra zein egoeratan dagoen esanez akta jasotzea..
 - ✓ Dirulaguntzaren xedea material suntsigarria erostea, zerbitzuak ematea edo antzeko zerbitzuak denean, egindako ordainketak egiaztatzen dituzten agiri originalak aurkeztea errekerituko da.
9. Edozein dirulaguntzaren hartzaileak bere zerga edota prezio publikoak ordaindurik izan beharko ditu Udala Ogasunaren aurrean.
10. Onuraduna zordun denean epemuga buruturiko zor likido eta exijigarri batengatik, Udala erabaki ahal izango du konpentsazioa.

16. Artikulua – Inbertsio-Gastuak.

1. Lehen establezimenduren gastu-baimena, eta handitzeko eta hobetzekoak, legalitateari egokitzeari buruzko azterketei dagozkien alde aurreko emaitzen baldintzapean egongo dira. L
2. Espedientean, dena den, ondorengo dokumentazio hau jaso beharko da:
 - a) Proiektua, planoak eta memoria.
 - b) Kostu osoa jasotzen duen aurrekontua.
 - c) Urbanizazio obrak egin beharrik balitz, haien kostua ebaluatuko da.
 - d) Baldintza plegua.
 - e) Zerga bereziak ezartzearen espedientea ireki izanaren egiaztapena edota hura ez dagoela dioen txostena.
 - f) Amortizazioa, gutxi gora-behera haren erabilgarritasunaren iraupena arrazoituz.
 - g) Ondorengo ekitaldietan funtzionamendu eta kontserbazioaren gastuen gutxi gora-beherakoa, kopuru horiei buruzko txostena kontuhartzaitzak egin beharko duenari, ondorengo urteetan horiek estaltzeari dagokionez.
 - h) Aurrekontu-aplikazioaren proposamena.
 - i) Egintza horrek bere baitan ondorengo ekitaldietarako inbertsio-konpromisoak badakartza, kontuhartzaitzaren aldeko txostena jaso beharko da, indarrean dagoen araudiak kreditu horietarako ezartzen dituenak bete izanari buruz.
3. Kudeaketa zerbitzuek PERT bat, edo VI. Atalburuan sartutako proiektuak egiteko egutegi bat, aurkeztuko dute, material inbertsioaren erostetena salbu, gutxienez ondorengo datu hauek adieraziz:
 - ✓ Proiektuaren enkargu eta amaiera data.
 - ✓ Proiektuaren onarpen data.
 - ✓ Adjudikazio data.
 - ✓ Obraren hasiera data.
 - ✓ Lehen ziurtaginaren data.
 - ✓ Gastuaren gauzatzaren eritmoa.
 - ✓ Obraren entrega data.

17. Artikulua – Kontratuak adjudikatzeko prozedura negoziatua.

Prozedura negoziatua, Administrazioak justifikatuki hautatutako enpresariari adjudikatuko zaio kontratua, alde aurretik enpresari batekin edo batzuekin kontratuaren kontratuaren xehetasunak kontsultatu eta negoziatu ondoren. Adjudikazio-prozedura horren kopuru-mugak, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak onartutako Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateratuak ezartzen dituenak izango dira.



Lezoko Unibertsitateko Udala

19. Artikulua – Justifikatzeko ordainketak

1. Justifikatzeko ordainketa-aginduak emango dira, soilik, beharrezko erosketa edo zerbitzuren kasuan, horien ordainketa kaxa finkoko aurrerapenen kargura egin ezin denean eta egin baino lehen egiaztagiririk eduki ezin denetan.
2. Baimentzea Alkateari dagokio.
3. Gehienez ere hiru hilabeteko epearen barruan eta, nolana ere, ekitaldia itxi baino lehen, hartzaileek ekarri beharko dituzte Kontuhartzaitzara ordainketaren justifikazio-agiriak, inbertitu gabeko kopuruak itzuliz.
Inolako kasutan ezin izango zaizkie "justifikatzeko" ordainketa agiri berriak eman, aurrekontu-kontzeptu beraiengatik, oraindik beren esku justifikatu gabeko fondoak dauzkaten hartzaileei.
4. Justifikazioaren formari eta edukari dagokienez, beharrezkoa da haiek Kontuhartzaitzatik emandako jarraibideei egokitzea, betiere kontuan edukiz ezen, fondo horiek eman ziren helbururako bakarrik xedatu ahal izango direla eta egiaztagiriak originalak izan beharko direla.
5. Fondoan zaintzat hartzailea arduratuko da.

19. Artikulua - Ordainketa-erregimena.

Ordainketak, arau orokor gisa, banku-transferentzia bidez egingo dira hartzaileak horretarako seinalatutako kontuan. Ordainketa horiek, kausa justifikatuak salbu, hil bakoitzeko 10 eta 25ean egingo dira edota, hala behar balitz, ondorengo lanegunetan.

III. TITULUA SARREREI ETA ORDAINKETE BURUZ

ATALBURU BAKARRA – LIKIDAZIOAK ETA DIRUZAINNTZA

20. Artikulua – Diruzaintza Plana

1. Diruzainari egokituko zaio diruzaintzako Hiruhileko Plana gauzatzea, Ogasunerako zinegotzi delegatuak onarturik.
2. Baliabide likidoen kudeaketa errentagarritasun handiena lortzearen irizpidearekin eramango da burutara, betiere berehalako likidezia ziurtatuz epe bakoitzaren buruko obligazioak betetzeko helburuz.
3. Aurrekontuaren egikaritzan lor daitezkeen baliabideak obligazioen multzoa konplitzera xedatuko dira, nolaz eta helburu seinalatu batzuei atxikitako sarrera espezifikoa ez diren. Horrelako izaera dute hauek:
 - ✓ -Egindako ordainketen itzulerak.
 - ✓ -Transferentzia finalistak.
 - ✓ -Berezko izaerarengatik helburu espezifikoa bat daukan beste edozein.



Lezoko Unibertsitateko Udala

IV. TITULUA.- KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ATALBURU BAKARRA – BARNE-KONTROLA

Artículo 21 - Fiscalización limitada

1. Aldez aurreko eskuhartzeren menpe ez dira egongo material ez-inbentariagarri eta hornidura txikiren gastuak, eta ere berean, aldikako izaera dutena eta gainerako jarraikakoak, jada egintzaren hasierako denboraldiari edo haiek dakartzan kontratuari edo haren aldaketei dagokien gastu-eskuhartzea behin eginez gero.
2. Gastu arruntetan, II Atalburuari dagozkionetan, fiskalizazio mugatua egingo da, 21/2003 Furu Arauko 71. Artikuluan zehazten denaren arabera.
3. Lagin-teknika bidez egin ahal izango da fiskalizazioa ondorengo kasu hauetan:
 - a) Pertsonalaren ordainketa.
 - b) Tasen likidazioa.
 - c) Erroldetan jasotako aldizkako tributuak.Fiskalizazioa lagin bidez egin denean, xehetasun hori espreski jasoko da txostenean.

V. TITULUA.- BESTE PROZEDURA-ARAU BATZUK

ATALBURU BAKARRA – BARNE-PROZEDUREN EITEAK.

22. Artikulua.- Bermeak itzultzea.

1. Jarritako bermeen itzulketari buruzko txostena, dagokion espedientearen kudeaketa eta/edo tramitazioaren ardura duen Departamentu/Zerbitzuak egingo du, eta halaber egingo dute udal-zerbitzu ekonomikoek.
2. Kontratazio-espediente batean parte hartzeko behin-behineko bermeei dagokienez, haiek ofizios bueltatuko dira kontratuaren adjudikatzea egin denean.
3. Kontratazio-espedienteetan, jarritako bermea itzultzeari buruzko Ebazpena Alkatearen Ebazpen bidez hartuko da, aldez aurretik espedientearen kudeaketa dagokion eta/edo tramitazioaren ardura duen Departamentu/Zerbitzuak egindako, eta halaber udal-zerbitzu ekonomikoek egindako txostenen ondoren.
4. Kontratazio-espedienteen bestelakoetan jarritako bermeak itzultzeko Ebazpena, aipatutako bermea ezarri zuen organo berak hartuko du. Udalbatza Osoak hartutako akordio baten indarrez jarritakoa balitz, hark delegatu ahal izango du Gobernu Batzordearen baitan haren Ebazpena hartzeko eskumena. Aipatzen diren balizko guztietan, beharrezkoak izango dira ezarritako baldintzak bete izana egiaztatzen duten txostenak.

23. Artikulua.- Alferrikako gauzen salmenta

Alferrikako gauzen salmenta Alkate-Lehendakariaren Dekretu bidez baimenduko da, haren zenbatekoa 3.100 € baino gutxiago denean, Udal Gobernu Batzordeari aditzera eman behar izanik, eta beste zenbait kasutan organo honek baimenduko du, betiere, jakina, salmenta horiek beste udal organoren baten akordio beharrik ez dutenean.

24. Artikulua.- Joan-etorrietako gastuak



Lezoko Unibertsitateko Udala

1. Udal izaerako gestio edo jarduerak direla medio egindako joan-etorrietako Korporazioko kideei sortutako gastuak, ondorengo irizpide hauen arabera ordainduko zaizkie:
 - ✓ -Joan-etorriak eta egonaldiak zuzenean ordainduko dira, arau orokor gisa, Udalaren aldetik. Baldin eta Korporazio-kideak ordainduko balitu, gastuaren frogagiriak aurkeztearen bidez ordainduko zaio haien zenbatekoa. Frogagiririk aurkeztu gabeko ordainketak baimenduko dira soilik haiek ez daudenean, likidazioa dagokion denboran eguneko 6 € gainditzen ez denean.
 - ✓ -Ibilgailu partikularrean egindako joan-etorriak, Udal langileei aplikagarri zaien akordioak ezartzen dituen kopuruen antzeko zenbatekoaren heinean ordainduko dira.
 - ✓ Kasu bakoitzean, Alkatetzak baimenduko ditu gastuak.
2. Udal enplegatuek dieta-kontzeptutan jasoko dituzte, beren lan baldintzak arautzen dituen akordioak horri buruz finkatutakotik ateratzen diren asignazioak.
3. Udal enplegatuen joan-etorriak Korporazioko kideren batekin batera izan direnean, Korporazioko kideei nahiz udal enplegatuei aplikatuko zaien gastu erregimena haiena izango da, eta, gastuen justifikazio kasuan, bidaia egin duen taldearen zuzendaritza bere gain hartu duen Korporazio-kideari egokituko zaio likidazioa egitea.
4. Aurreko pasarteetan finkatutakoaren arabera dietak ordaindu zaizkien Korporazio-kideek eta udal enplegatuek Memoria bat idatzi beharko dute egindako bidaiak, bidaiaren data eta nondik norakoa adieraziz eta, halaber, abiatze ordua eta itzulerarena, egindako gestioak eta noren aurrean eta haien emaitzak. Bidai horren arrazoa Ikastaro, Jardunaldi edo horrelako zerbaitetan parte hartzea izan denean, Memorian aipatu beharko dira haien edukia eta garrantzia.
5. **Hautaketa Epaimahaietako kideak.** Korporazioko edo udal plantillako partaide izan gabe, dagozkion Deialdi-Oinarrien arabera Udalak eraturako Hautaketa Epaimahaietan parte hartzen duten pertsonak, edota, hala balitz, horretarako izendatutako beste ezein Entitate edo Erakundek, eta haren partehartzea xedapen espezifikoren batek araututa ez badago behintzat, ondorengo asignazio hauek jasoko dituzte:
 - a) **Lokomozio gastuak:**

Garraioaren gastuaren zenbateko ezaguna edo, bestela, bidaia nork bere ibilgailuan egin badu, kilometroko 0,29 € jasoko du gehi bidesariari dagokion kopurua (autopista). (E.A.O 121, 2006/06/28 datakoa), edo geroztiko eguneratzeak.
 - b) **Dietak:**
 - ✓ Egonaldia, gastuaren zenbateko ezagunaren arabera ordainduko da.
 - ✓ IV Eranskina, 16/1993 Dekretua. (E.A.O 121, 2006/06/28 datakoa), edo geroztiko eguneratzeak.
6. **Korporaziokideei ordainsaria:**

Arau hau aldatzeko xedapenak salbu, udal organoetan partehartzearengatik ordainsariak ondoren seinalatzen direnak izango dira: (Osoko Bilkura 2007/10/03)

➤ Osoko Bilkuran parte hartzeagatik:	100€
➤ Gobernu Batzarretan parte hartzeagatik	118€
➤ Batzorde berriemaietan parte hartzeagatik	100€
➤ Alkatearen esku-ordekoan	200€ Hilero
➤ Osoko bilkuran parte hartzen duen adlerdi politiloak	85€ Hilero

Asistentziarengatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ez dute izango, ez Alkate-Lehendakariak, ezta dedikazio osozko erregimenean beren karguetan ari diren Korporazio-kideek



Lezoko Unibertsitateko Udala

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Bat.- Udalak bere esku eskusiboki gordetzen du bermeak emateko posibilitatea eta bere zor propioak eta bere eskumenpeko Organismo Autonomoenak bere gain hartzeko posibilitatea, horretarako gehieneko mugak indarrean dagoen araudiak gai horretan markatzen dituenak izanik

Bi.- Arau honetan aurreikusi gabeko orotan, dagozkien udal arautegi eta erregelamenduek, eta legeko xedapen aplikagarriek, xedatzen dutenari lotu beharko zaio.